

## ZAPATATXO ZURIAK

Irene Garcia Busto

*Bilbo*

Ez naiz damutzen. Pertsona bat hil dut eta ez naiz damutzen. Hamasei urte ditut eta 2009ko apirilaren 24tik hau egitea amestu izan dut. Beraz, ez, ez naiz damutu.

Bost urte nituen. Asteazken arratsaldea zen eta nire lagun minaren etxean jolasean ibili ostean, Aneren amak etxera eraman ninduen. Afaltzeko ordua zen, beraz, oso arraroa zen nire aita etxean ez egotea. Ama bi hilabete aurrerago hil zen eta, hortaz, ez nuen bera etxean egoterik espero. Amanda bakarrik zegoen etxean, etxea garbitzen duen andrea. Afaria prestatzen amaitzerakoan, kopetan musu eman ez alde egin zuen, ni etxean bakarrik utzita. “Aita berehala etorriko da” izan ziren nire haurtzaroan entzun nituen azken hitzak. Gau hartan gertatuko zena jakin izan balu, ez nindukeen ni han bakarrik utziko.

Telebista piztu nuen eta nire telesail gogokoena ikusten eseri nintzen sofan, aitaren zain. Halako batean, atea kolpe zaratatsu batekin irekin zen. Han zegoen bera, mozkor-mozkor eginda. Bost

urte besterik ez nituen eta zer zen ez nekien arren, mozkortuta zetorren. Barre-algarak egiten zituen eta hasieran txantxatzat jo nuena, bizipen beldur-garri bihurtu zen. Ni ikusterakoan irribarre egin zuen, suge baten antzera. Sofara heldu eta nire alboan eseri zen. Nire aurpegia musukatzen hasi zen, hasieran aita batek bere alaba musukatzen duen erara. Ondoren, beste modu ezberdin batean. Musu horiek ez zituen maitasunak ematen, morboak baizik. Zapatak kendu zizkidan eta hauekin jolasten hasi zen, ume txiki baten antzera. Kantatzen hasi zen, “zapatatxo zuri hura, nire bihotzeko mina”. Melodia bera errepikatzen zuen nire oinak hartu eta laztantzen zituen bitartean. Ondoren, nire belaunetara heldu ziren haren eskuak eta geroago nire izterretara. Ez nuen ulertzen zer ari zen gertatzen, ez nekien zer esan, ez nekien zer egin. Elbarri sentitzen nintzen, bere eskuak nire hanketan gora zihoazen. Gero eta gorago, gero eta gorago, nire bi hankak lotzen ziren eremura iritsi zen arte. Txundituta nengoen, ez nekien zergatik ari zen hor ukitzen. Ondoren gertatu zena aurrekoa baino txarragoa izan zen. Praxak jaitsi zituen, baita galtzoinak ere. Agerian geratzen zena nire aurpegira eraman zuen. Mugimendu zakar baten bidez, nire ahoa hartu eta indarrez ireki zidan. Handik aurrera gertatutakoa ahaztera behartu dut nire burua. Gau hartan lo geratu arte egin nuen negar, nire hankartea odolotan blai zegoela.

Biharamunean aurreko gaueko gizon hark esnatu ninduen.

—Burutik pasatu ere ez atzo gertatu zena kontatzea! Kontuz ibili nirekin, Eva —esan zidan bere bi eskuek nire besoak gogor eusten zituztela—. Zin egidazu, Eva. Zin egin!

—Zin egiten dizut aita —erantzun nuen nik ahots mehe batekin.

Hilabeteetan ez zen berriro gertatu, nire amesgaiztoetan soilik. Hala ere, banekien ez zela aldi bakarra izango eta gauero, lanetik noiz bueltatuko zen zain nengoen bitartean, beldur nintzen, gau hartan gertatutakoa errepikatzearen beldur.

2010eko otsailaren 5ean gertatu zen berriro ere, baita 12an eta 16an ere. Lanean sasoi txar bat igarotzen ari zela uste dut. Ohitura bilakatu zen, infernua. Urteak igaro ziren eta berdin jarraitzen genuen, bera nire gorputza erabiltzen eta ni, beldurrak airean, mutu. Ez nion inori ezer esan, berak horren berri izango baitzuen eta nork daki zer gehiago egiteko kapaz izango zen.

Gau horiek motxila astun ilun bat bezala daramatzat eta ezinezkoa egiten zait kentzea. Pisuak nirekin ahalko du, baina ezin naiz erori. Beste umeei inbidia diet, nik bizitakoa besteek ez bizi izanari. Irribarre egiteko erraztasunari inbidia diot, baita familia bat izateari ere. Eskolan ikusezina naiz. Ane izan zen nire azken laguna. Duela urteak eman genuen arratsalde hura ez da errepikatu. Lehenengo gau hark aldatu egin ninduen eta handik aurrera ez naiz neska bera izan. Nire lagunenen-

gandik aldendu egin nintzen eta bakarrik geratu nintzen. Ama askotan dut gogoan. Ez dut ondo gogoratzen, baina bai nire bizitzako pertsonarik garrantzitsuena, onena galdu nuela jakiteko beste. Aitak bere argazki guztiak erre zituen, baina nik batzuk ezkutatu nituen. Gaueko ordu txikiak argazkiei begira ematen nituen, nire malkoekin bustita daude gehienak. Berak jakingo balu... Etorri ni salbatzera, ama, zurekin egon nahi dut.

2017ko maiatzaren 22an nahi hura asetzetik oso hurbil egon nintzen. Nire buruaz beste egin nahi izan nuen. Bezperan nire aitaren logelara sartu nintzen eta gorbata bat hartu nuen, honekin guztiarekin akabatu nahian. Gorbata lotu eta armairuaren esekitokira estutu nuen. Aulkira igo, burua zuloan sartu eta salto! Salto egitean aulkia erori egin zen, zarata ozen bat ateraz. Nire bizitza gutxinaka-gutxinaka alde egiten ari zela sentitzen nuen, baina sentsazio hark ez zuen denbora luzez iraun. Amanda sartu zen atetik une hartan ni agurtzeko asmoz. Hango egoera ikusi eta oihuka hasi zen, ni berehala askatu eta anbulantzia deitu zuen. Ia iritsi nintzen amarengana. Bere koloniaren usain goxoa usain nezakeela zin egin dezaket. Bat-batean mediku batek esnatu ninduen.

Psikiatriko batera sartu ninduten eta han eman nituen urteak nire hamaseigarren urtebetetzea iritsi zen arte. Nire aita eta Amanda noizean behin ikusten nituen, niri bisitak egitera etortzen baitziren. Nire bizitza osoan bakarrik egoten ikasita nengoen, beraz, ez zen sakrifizio handiegia izan. Lasai

nengoen han, nire aitaren torturatik urrun. Era batean edo bestean, libre nintzen.

2020ko urtarrilaren 9an etxera bueltatu nintzen, psikiatrikoan eman nituen egunak bukatu ziren eta mundu errealera bueltatzeko unea zen. Abusuak berriz bueltatu ziren, nola ez.

Aski zen dagoeneko, eta apirilaren 19an nire sufrimenduarekin bukatu nuen.

Nire aitaren urtebetetzea zen eta beti bezala, mozkortu egin zen lagunekin. Etxera heltzerakoan nire logelara sartu zen. Gaueko ordu biak ziren eta lo nengoen. Maindireak mugimendu zakar baten bidez kendu zituen eta esnatu egin ninduen. Pijama kentzen hasi zen. Musuak ematen zizkidan, baina nik aurpegia baztertzen nion. Gau-mahaiko tiraderatik nire amaren argazki bat agerian geratu zen. Hura ikusteak indarra eman zidan. Gau-mahaiko lanpara hartu eta bere buruan apurtu nuen. Korrika abiatu nintzen sukaldera.

—Etor zaitetz hona, sasikume halakoa! Ez dut berriro ere errepikatuko!

Odoletan zegoen eta nire bila etorri zen. Pasabidean zegoela iruditu zitzaidan. Aizto bat hartu eta atearen atzeko aldean ezkutatu nintzen, bere zain.

—“Zapatatxo zuri hura, nire bihotzeko mina”  
—kantatzen zuen—. Eva bueltatu ohera, ondo pasatuko dugu eta.

Ez nuen ezer esan. Bera komunera sartu zen eta gero egongelara. Ez ninduen aurkitu.

—Non zaude, Ebatxo? —esan zuen ahots leun

batekin—. Ez dizut lehen esan, baina psikiatrikotik etorri zarenetik txoratuta naukazu. Emakume ederra bihurtu zara.

Botaka egiteko gogoan nuen. Haren urratsak hurbiltzen hasiak ziren. “Oraindik ez, oraindik ez” pentsatzen nuen. Ateko markoan zegoela ziurtatu nahi nuen eraso baino lehen.

—“Zapatatxo zuri hura, nire bihotzeko mina” —jarraitzen zuen kantatzen.

Melodia hura, nire bizitza osoan segika nuen melodia. “Orain” oihukatu zuen nire senak. Aiztoa atera eta bularrean sartu nion. Lurrera erori zen berehala.

—Eva... Nola egin duzu hau... Nik maite zaitut...

Hil egin zen eta honekin nire tormentuaren atal bat ere hil zen. Sofan eseri nintzen eta lo geratu nintzen. Ez nuen aspaldian horrela lorik egin. Motxilak pixka bat gutxiago pisatzen zuen.

Polizia sirenek esnatu egin ninduten. Begiak irekitzerakoan hainbat pertsona zeuden niri begira, haien artean Amanda. Negar-zotinka zegoen, emakume gajoa, lan egiteko etxe guztietatik txarrena aukeratu zuen. Uniformedun bi pertsonak besoetatik heldu eta altxatu egin ninduten.

—Eva Etxeberria, zer dakizu atzo gertatutakoari buruz? —galdetu zidan emakumeak.

—Zer? —galdetu nuen galduta.

Logura aurpegia nuen oraindik eta aurreko egunean gertatu zena amestu egin nuela pentsatzen nuen. Bere gorpua ikusi nuen orduan, odolez

betea. Errealitateak kolpatu egin ninduen, nik hil nuen.

—Ni izan nintzen, nik hil nuen.

Gaur 2020ko maiatzaren 3a da. Jendez beteriko gela batean nago, epaitu egingo naute. Akusatuen aulkira igotzeko deitu didate. Ehun bat pertsona ditut aurrean, haien amorruez beteriko begiradak senti ditzaket. Askoren begietan beldurra ikusten dut. Nire beldur dira, hain gaztea izanik, hain ekintza maltzurra egiteko gai izan naizelako. Ez dute istorio osoa ezagutzen.

—Aurkeztu zure burua —esan dit epaileak.

—Egun on. Eva Etxeberria naiz eta hamasei urte ditut.

—Ondo da. Eva, zer gertatu zen apirilaren 19an?

—Nire aita hil nuen.

—Zergatik?

2009ko gau hartan kokatu dut narrazioaren abiapuntua. Nire barruan gorde ditudan memoria guztiak zehaztasunez kontatu ditut. Hitzak nire ahotik igaro ahala, jendearen beldurra tristura bihurtu da. Errukiz bete da aretoa. Bukatzerakoan libre sentitu naiz. Motxilak gero eta gutxiago piztzen du. Nire bizitza osoan zehar labanak bailiran nire buruan sartu diren gertakariak gutxiago mintzen naute jadanik. Gertatu zaidana kontatzeak mina arindu dit, botika batek gaixotasun bat bezala. Nire aurrean dudan mahaiaren azpiko aldera begiratu dut. Duela hamaika urte ez nuela zapata zuririk janzten. “Zapatatxo zuri hura, nire bihotzeko mina”. Abesti hori entzun nuen lehen gauean

zapatak apurtu nituen. Hau ikustean, aitak berriak erosi zizkidan eta horiek ere apurtu egin nituen. Gaur zapata zuriak daramatzat, hauek ere motxilatik atera ditut.

—Damutu al zara? —galdetu didate.

—Ez, ezta une batez ere.

Bizitza kendu dizut, baina zuk bizitzeko gogoa kendu zenidan. Berdinduta gaude, aita.